

TORTURA. Juan Ramon Rojo, Xabier Arriaga eta Paco Palaciosen jasandako torturen berri izatea egotzi zieten

Bizkaiko Entzutegiak bi guardia zibili jarritako zigorra baliogabetu du Gorenak

Arturo Prietok eta Daniel Simonek 18 hilabeteko zigorra zuten jasoa



XOUSE SIMAL

Juan Ramon Rojo, Bizkaiko Entzutegian egin zen epaiketan deklaratzeko.

Joseba Arruti | BILBO

Espainiako Auzitegi Gorenako Zigor arloko Salak bertan behe-
ra utzi du Bizkaiko Entzutegiak
1999ko martxoan bi guardia zi-
bili torturengatik ezarritako zi-
gorra. Hamazortzina hilabete-
ko kartzela zigorra eta hama-
zortzina urteko inhabilitazioa
ezarri zieten Arturo Prieto eta
Daniel Simon guardia zibilei,
hiru tortura delitugatik: 1992an
ETAekin zerikusia zutelakoan
atxilotutako Juan Ramon Rojo,
Xabier Arriaga eta Paco Pala-
ciosen aurkakoak, hain zuzen.

Hiru pertsona horiek ETAko
Bizkaia komandoarekin lotzen
zituzten, eta 1992ko urtarrila-
ren 29an atxilotu ostean jasan
zituzten torturak Guardia Zibi-
leko Zuzendaritza Nagusiaren
egoitzan, Madrilén, Bizkaiko
Entzutegiaren epaiak frogatu-
tzat eman zuenez. Akusatu biak
atxiloketen inguruan egindako
diligentzietako instruktorea eta
idazkaria izan ziren, eta tratu
txarren jakinaren gainean ego-
tea egotzi zieten.

Europa Press berri agentziak
zabaldu zuen atzo Auzitegi Go-
renaren erabakia. Sententziak
dioenez, «giza irizpidearen be-
rezko logika baliatuta, ezin dai-
teke baieztatu orain helegitea
aurkeztu duten akusatuak der-
rigorrez jakin behar izan zute-
nik euren menpeko pertsonalak
atxilotutakoei emandako tratu
txarraren berri, eta hori beha-
rezko oinarri faktikoa da ondo-
ren euren jokabidea ez-egitez
gauzatutako tortura delitu gisa
sententzia batean jasotzeko».

Auzitegi Gorenak dioenez,
Bizkaiko Entzutegiak guardia
zibil biek tratu txarren berri izan
zutela baiesteke «ezintasun
arrazionala» izan omen zuen,
eta haien erruduntasuna «bide
inferentzialetik ondorioztatu
zuen, logikarik gabeko arrazoi-
bidea baliatuta».

Bost eguneko tortura saioak jasan zituzten

Bizkaiko Entzutegiaren epaiak
frogatutzat jo zuen hiru atxilo-
tutakoek tratu txarrak jasan zi-

BIZKAIKO ENTZUTEGIA

1999an plazaratutako
epaian frogatutzat jo
zuen hiru atxilotuek
bost egunez jasan
zituztela tratu txarrak

AUZITEGI GORENA

Galdeketa, abokatua
aurrean zegoela,
atxilotuek tratu txarrik
salatu ez zutela
azpimarratu du

tutzela bost egunez Madrilén,
eta agian baita Bilboko Salboko
kuartelean ere —bertara era-
man baitzituzten hasiera bate-
an—, baina ez zituen identifika-
tu tratu txarron egileak. Hala,
egile zuzenak izateaz akusatuta
zeuden beste sei agente absol-
bitu egin zituzten.

Entzutegiak esan zuenez,
«Prieto kapitainak eta Simon
tenienteak ongi aski jakin zuten
tratu txar horien berri», eta
haien erantzule zirela adierazi
zuen. Ondorioz, kartzela zigo-
rraz eta inhabilitazioaz gain, mi-
lioni bat pezetako kalte-ordaina
eman behar izan zioten Rojori,
eta bostehuna milakoa beste
atxilotu biei.

Auzitegi Gorenaren irudiko,
ordea, guardia zibil biek ez zu-
ten zertan izan tratu txarren
edo atxilotutakoen kexen berri,
eta galdekatu zituztenean ere
posible ikusten du haien lesioez
ez ohartzea.

Sententziak jasotzen duenez,
Arriagak ekimosi bat zeukan
sudurraren ezker aldean, auzi-
ko medikoak «diskretotzat» jo
zuen, eta gainerako lesioak
arropak edo ileak estaltzen ei-
zizkion. Rojori dagokionez, le-
pokoa jarri zioten eta odol ja-
ria zuen begi batean. Alabai-
na, «abokatuak lagunduta ze-
goela, galdeketa ez zuen tratu
txarrik salatu», dio Gorenak.

ANTZEKO SENTENTZIA BI

Olabarria eta Tobalinaren kasuan zigortutakoak

Atzo jakinarazitako sententzian errugabetzat
jotako bi guardia zibilak, Arturo Prieto eta Da-
niel Simon, 1992an polizi operazio berean atxi-
lotutako beste bi lagunek jasotako tratu txar-
rengatik zigortu zituen Bizkaiko Entzutegiak
iragan hilabetearen. Hala, seina hilabeteko kar-
tzela zigorra, beste horrenbesteko inhabilita-
zioa eta 600.000 pezetako kalte-ordaina ezarri
ziren biei, Aitor Olabarria eta Juan Manuel To-

balinak Guardia Zibileko Zuzendaritza Nagu-
sian eta Salboko kuartelean jasandako tortu-
rengatik.

Olabarria eta Tobalina ere ETAko *Bizkaia ko-
mandoko* kide zirelakoan atxilotu zituzten
1992ko urtarrilaren 29ko polizi operazio zaba-
lean, Juan Ramon Rojo, Xabier Arriaga eta
Paco Palacios atzeman zituzten aldi berean.
Bizkaiko Entzutegiak kasu bietan emandako
epaiak antzekoak dira, eta Olabarria eta Tob-
alinaren kasuan frogatutzat jotzen dituen tratu
txarren xedea «atxilotuen borondatea haustea
eta ETA erakunde terroristaren inguruko infor-
mazioa lortzea» izan zela zioen.

WWW.DAEWOO MOTOR.ES
INFODAEWOO: 902 303 900

DAEWOO LANOS PLUS

Sartu zaitetz Lanos batean eta inork aurkituko ez zaituen tokiraino iritsiko zara.
SERIE BEREZIA: SERIEKO AIRE EGOKITUAREKIN.



1.415.000*PEZETATIK AURRERA

DAEWOO
Lanos
GEHIGAGO EMATEN DIZUGU

egin ihes

TURISMOS

BOLUETA, S.A.

Bilbao-Galdakao errep. 28
48004 Bilbo
Tel. : 94 473 36 48
(Erakusketa eta Tailerra)

KONTZESIONARIO OFIZIALA:

*Penintsula eta Balearretarako gomendatutako salneurria, Lanos Plus 1.4 SE 3P (BEZ, matrikulazio zergak eta Garraioa barne).
Stockeen dauden ibilgailuentzako promozioa. Ezingo da beste eskaintzekin bildu. Prever Plana barne.